

**SOCIEDAD PARA LA TRANSFORMACIÓN COMPETITIVA-
ERALDAKETA LEHIAKORRERAKO SOZETATEA, S.A.**

**GOBERNU KORPORATIBOAREN 2010EKO EKITALDIKO
TXOSTENA**

**SOCIEDAD PARA LA TRANSFORMACIÓN COMPETITIVA-ERALDAKETA
LEHIAKORRERAKO SOZIETATEA, S.A
GOBERNU KORPORATIBOAREN 2010EKO EKITALDIKO TXOSTENA**



1. JABETZAREN EGITURA

1.1.- Sozietatearen kapitala

2010eko abenduaren 31n, hau zen sozietatearen kapitala:

Azken aldaketa-data	Kapital soziala (€)	Akzio-kopurua	Boto-eskubideen kopurua
2010-12-13	395.630.000	3.956.300(*)	3.956.300

Akzio izendunak dira —bakoitza ehun eurokoa eta guztiak mota berekoak—, eta guztiak harpidetuta daude.

1.2.- Ekitaldiaren itxieran, hauek ziren partaidetzen titular zuzenak:

Akziodunaren izena edo izen soziala	Boto-eskubide zuzenen kopurua	Boto-eskubide guztien araberako %
EAE-ko ogasun orokorra	3.914.927	%98,959
Bilbao Bizkaia Kutxa	21.456	%0,542
Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa	14.546	%0,367
Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa	5.379	%0,135

1.3.- Ekitaldian, mugimendu nagusi hauek izan dira akzio-egituran:

Akziodunaren izena edo izen soziala	Eragiketa-data	Eragiketaren deskribapena	Hedapenaren aurreko partaidetzaren %	Hedapenaren ondorengo partaidetzaren %
EAE-ko ogasun orokorra	2010.10.08	Kapitala 35.000.000 € zabaltea	%98,79	%98,89
EAE-ko ogasun orokorra	2010.12.13	Kapitala 20.050.000 € zabaltea (*)	%98,89	%98,95

(*) 2010eko abenduaren 31n, 3.755.809 zenbakitik 3.975.808 zenbakirainoko akzioen % 50 ordainduta zeuden, eta gainerakoak ordainduta pasiboa 2011ko irailaren 30a baino lehen egin behar da, dirutan.

1.4.- Hauek dira sozietateko akzioak dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

Kontseilariaren izena edo izen soziala	Boto-eskubide zuzenen kopurua	Boto-eskubide guztien araberako %
Bilbao Bizkaia Kutxa	21.456	%0,542
Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa	14.546	%0,367
Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa	5.379	%0,135

Administrazio Kontseiluaren esku dauden boto eskubideen %	%1,044
---	--------

1.5.- Sozietateari ez zaio jakinarazi harengan eragina izan dezakeen hitzarmen parasozialik ez eta akziodunen artean hitzartutako ekintzarik.

1.6.- Sozietateak ez du akziorik autozorroan.

1.7.- Estatutuetan ez dago mugarik boto-eskubideak gauzatzeari dagokionez.

1.8.- Estatutu Sozialen 7. artikuluan, muga hauek jartzen zaizkio kapital sozialean partaidetzak transmititzeari:

Akzioak sozietatekoak ez diren pertsoneri —alegia, akziodunak ez direnei— “intervivos” egintzen bidez transmititzeko, arau hauek bete behar dira, akzio horiekiko funtsezko kontratuzko hitzarmen gisa:

Bere akzioa edo akzioak “intervivos” egintzen bidez transmititu nahi dituen bazkideak modu frogagarrian jakinarazi behar dizkio Sozietatearen Administrazio Kontseiluari akzioa edo akzioak transmititzeko erabakia, jaso beharreko prezioa edo kontraprestazioa, transmisioaren funtsezko baldintzak eta eroslearen izena, helbidea eta inguruabarrak. Administrazio Kontseiluak jakinarazpen horren berri eman behar die bazkideei hura jaso ondorengo hamabost egunen barruan.

Bazkideek transmitituko den akzioa edo akzioak erosi ahal izango dituzte Administrazio Kontseilutik jakinarazpena jaso ondorengo hogeita hamar egunen barruan. Bazkide bakar batek eroslehentasun-eskubidea erabiltzen badu, hark erosiko ditu akzioak. Bazkide batek baino gehiagok erabiltzen badute eroslehentasun-eskubidea, dagozkien akzioekin proportzioan banatuko dira akzioak. Akzio bat bada, eroslehentasun-eskubidea erabili dutenek jabekidetzan lortuko dute, dagozkien akzioekin proportzioan.

Aurreko paragrafoan azaldutako eroslehentasun-eskubidea bazkide batek ere erabiltzen ez badu, Sozietateak erosi ahal izango ditu transmititu beharreko akzioa edo akzioak, baldin eta, aurrez, Sozietatearen Batzar Nagusiak kapitala murriztea hitzartzen badu. Kapitala murrizteko hitzarmenaren ondorengo hogeita hamar egunen barruan erosi beharko dira akzioak, eta horrela erositako tituluak erosketa-eparearen barruan amortizatuko dira.

Artikulu honetan bazkideen eta Sozietatearen alde ezarritako eroslehentasun-eskubidea erabiltzean, bazkideek edo Sozietateak transmititzaleari ordaindu beharreko prezioa izango da Ohiko Batzar Nagusiak ekitaldi bakoitzean finkatutakoa edo, gai horri buruz ezer ere erabaki ez bada, bi aditu kontablek adostasunez erabakitakoa.

Artikulu honetan adierazitakoa zehatz-mehatz bete gabe egiten diren transmisioak baliogabeak izango dira, eta ez dute inolako balio eta ondoriozko izango.

2. SOZIETATEAREN ADMINISTRAZIO-EGITURA

2.1.- Estatutuetan, kontseilari-kopuru hau aurreikusten da, gutxienez eta gehienez:

Gehienezko kontseilari-kopurua	18
Gutxienezko kontseilari-kopurua	3

Gaur egun, 18 kontseilari daude.

2.2.- 2010eko abenduaren 31n, hauek ziren Administrazio Kontseiluko kideak:

Kontseilariaren izena edo izen soziala	Pertsona fisikoa den ordezkaria	Kontseiluan duen kargua	Lehenengo izendapen-data	Azken izendapen-data	Hautatzeko prozedura
Bernabé Unda Barturen jauna		Lehendakaria	2009.06.10		Ekainaren 10eko 5/1981 Legearen 6. artikuluan ezarritakoa
Carlos Aguirre Arana jauna		Lehendakariordea	2009.10.01		
F. Javier Garmendia Martínez jauna		Batzordekidea	2009.06.10		
F. Javier Vélez Sánchez jauna		Batzordekidea	2010.12.13		
Pilar Zorrilla Calvo andrea		Batzordekidea	2009.06.10		
Juan I. Goicolea Ruigomez jauna		Batzordekidea	2009.06.10		
José M. Iturrate Andechaga jauna		Batzordekidea	2009.06.10		
Juan José Garayar Elizondo jauna		Batzordekidea	2009.06.10		
Javier Ruiz Fernández jauna		Batzordekidea	2010.03.31		
J. Guillermo Zubia Guinea jauna		Batzordekidea	1999.11.11	2009.10.01	
Arantza Zenarrutzabeitia Beldarrain andrea		Batzordekidea	2007.12.18		
Iñaki Hidalgo González jauna		Batzordekidea	2010.03.31		
J. Ramón Guridi Urrejola jauna		Batzordekidea	2007.12.18		
Jesús Alberdi Areizaga jauna		Batzordekidea	1991.03.22	2010.12.13	
Pedro Esnaola Latasa jauna		Batzordekidea	2010.10.08		
Bilbao Bizkaia Kutxa	Fernando Irigoyen Zuazola jauna	Batzordekidea	1991.03.22	2010.12.13	BBK-ko Batzorde Exekutiboak izendatua
Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa	José Antonio Leturiaga Totoricagüena jauna	Batzordekidea	1998.05.27	2008.10.09	Kutxa-ko Batzorde Exekutiboak izendatua
Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa	Hernando Lacalle Edeso jauna	Batzordekidea	1997.03.6	2007.12.18	Caja Vital-eko Batzorde Exekutiboak izendatua

**SOCIEDAD PARA LA TRANSFORMACIÓN COMPETITIVA-ERALDAKETA
LEHIAKORRERAKO SOZINETATEA, S.A
GOBERNU KORPORATIBOAREN 2010EKO EKITALDIKO TXOSTENA**



() **Seigarren artikulua.** Autonomi Erkidegoak izenpetutako kapital sozialari dagozkion Sozietate Kudeatzailearen Administrazio Kontseiluko kideak Gobernuak izendatu edo kargugabetuko ditu, Industria Saileko titularrak eginiko proposamenari jarraituz eta Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari jakinaraziz.....]*

2.3.- 2010ean, kontseilari hauek utzi zuten Administrazio Kontseiluko kargua:

Izena	Kargua uztean zuen kontseilari-kargua	Baja-data
Izaskun Arteché García andrea	Batzordekidea	2010.03.31
Pablo Angulo Barcena jauna	Batzordekidea	2010.03.31
Ignacio Echeberria Monteberría jauna	Batzordekidea	2010.10.8
Pedro Hernández González jauna	Batzordekidea	2010.12.13

2.4.- 2010eko ekitaldian, Administrazio Kontseiluko kide hauek izendatu dira:

Izena	Alta-data
Iñaki Hidalgo González jauna	2010.03.31
Javier Ruiz Fernández jauna	2010.03.31
Pedro Esnaola Latasa jauna	2010.10.08
Francisco Javier Velez Sánchez jauna	2010.10.13

2.5.- Berriazko dokumentu bat egin da kontseilari berriak trebatzeko eta bideratzeko. Alderdi hauek jasotzen dira dokumentuan:

- a. Ekainaren 10eko 5/1981 Legea, "Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua Sortzeari" buruzkoa.
- b. SPRI, S.A.ren Administrazio Kontseiluaren osaketa
- c. Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuaren Estatutu Sozialak
- d. Kontseiluaren Araudia
- e. SPRI, S.A.ren organigrama
- f. SPRIko programak
- g. Kudeaketa-plana
- h. SPRI, S.A.ko Administrazio Kontseiluaren azken hamabi hilabeteetako aktak.

SOCIEDAD PARA LA TRANSFORMACIÓN COMPETITIVA-ERALDAKETA
LEHIAKORRERAKO SOZINETATEA, S.A
GOBERNU KORPORATIBOAREN 2010EKO EKITALDIKO TXOSTENA



2.6.- Hauek dira kontseilari exekutiboak:

Kontseilariaren izena	Betetzen duen kargua
Bernabé Unda Barturen jauna	Lehendakaria
Carlos Aguirre Arana jauna	Lehendakariordea

Kontseilari exekutiboen kopurua guztira	2
Kontseiluaren % guztira	%11,11

2.7.- Hauek dira Kontseilari dominikalak:

Kontseilariaren izena	Ordezkatzen duen edo bere izendapena proposatu duen akziodunaren izena
Bernabé Unda Barturen jauna	EAEko Ogasun Orokorra / Eusko Jaurlaritza
Carlos Aguirre Arana jauna	EAEko Ogasun Orokorra / Eusko Jaurlaritza
Juan José Garayar Elizondo jauna	EAEko Ogasun Orokorra / Eusko Jaurlaritza
F. Javier Garmendia Martínez jauna	EAEko Ogasun Orokorra / Eusko Jaurlaritza
Juan I. Goicolea Ruigomez jauna	EAEko Ogasun Orokorra / Eusko Jaurlaritza
José M. Iturrate Andechaga jauna	EAEko Ogasun Orokorra / Eusko Jaurlaritza
Javier Ruiz Fernández jauna	EAEko Ogasun Orokorra / Eusko Jaurlaritza
F. Javier Vélez Sánchez jauna	EAEko Ogasun Orokorra / Eusko Jaurlaritza
Pilar Zorrilla Calvo andrea	EAEko Ogasun Orokorra / Eusko Jaurlaritza
Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa	-----
Bilbao Bizkaia Kutxa	-----
Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa	-----

Kontseilari dominikalen kopurua guztira	12
Kontseiluaren % guztira	%66,66

2.8.- Hauek dira Kontseilari independenteak*:

Kontseilariaren izena	Profila
J. Guillermo Zubia Guinea jauna	Zuzenbidean lizentziatua
Arantza Zenarrutzabeitia Beldarrain andrea	Filologia Erromanikoan lizentziatua
Iñaki Hidalgo González jauna	Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua
José Ramón Guridi Urrejola jauna	Goi-mailako Industri Ingeniaria
Jesús Alberdi Areizaga jauna	Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua
Pedro Esnaola Latasa jauna	Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua

(*) Ondore hauetarako, Kontseilari Independentea izango da bere baldintza pertsonal eta profesionalengatik izendatua izan dena eta bere lanak egin ditzakeena Sozietateak, akziodun nagusiek edo zuzendaritza karguek baldintzatu gabe.

**SOCIEDAD PARA LA TRANSFORMACIÓN COMPETITIVA-ERALDAKETA
LEHIAKORRERAKO SOZietATEA, S.A
GOBERNU KORPORATIBOAREN 2010EKO EKITALDIKO TXOSTENA**



Kontseilari independenteen kopurua guztira	6
Kontseiluaren % guztira	%33,33

Ez da aldaketarik gertatu urtean zehar kontseilarien tipologiari dagokionean.

2.9.- Kontseilari batzuek beren kargua utzi dute zegokien agintaldia amaitu baino lehen. Hauek izan dira kargua uzteko arrazoiak:

Kontseilariaren izena	Kargua uzteko arrazoa
Izaskun Arteché García andrea	Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren proposamena
Ignacio Echeberria Monteberría jauna	Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren proposamena
Pablo Angulo Barcena jauna	Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren proposamena
Pedro Hernández González jauna	Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren proposamena

2.10.- Administrazio Kontseiluak ez du izendatu kontseilari delegaturik.

2.11.- Administrazio Kontseiluan ez da batzorderik osatu.

2.12.- SPRI taldeko beste sozietate batzuetan administratzaile- edo zuzendaritza-karguak dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

Kontseilariaren izena edo izen soziala	SPRI taldeko entitatearen izen soziala	Kargua
F. Javier Garmendía Martínez jauna	Euskal Herriko Arrisku-Kapitalaren Kudeaketa AKEKS, S.A.	Administrazio Kontseiluko lehendakaria
	Sprilur, S.A.	Administratzailea
	Teknologi Parkea, S.A.	Administratzailea
Juan Ignacio Goicolea Ruigomez jauna	Euskal Herriko Arrisku-Kapitalaren Kudeaketa AKEKS, S.A.	Administratzailea
	Sprilur, S.A.	Administratzailea
Juan José Garayar Elizondo jauna	Euskal Herriko Arrisku-Kapitalaren Kudeaketa AKEKS, S.A.	Administratzailea
	Sprilur, S.A.	Administratzailea
Hernando Lacalle Edeso jauna	Euskal Herriko Arrisku-Kapitalaren Kudeaketa AKEKS, S.A.	Caja Vital-en ordezkaria den pertsona fisikoa
	Arabako Teknologia Parkea, S.A.	Caja Vital-en ordezkaria den pertsona fisikoa
José Manuel Iturrate Andéchaga jauna	Sprilur, S.A.	Zuzendari nagusia
	Donostiako Teknologia Parkea, S.A.	Administrazio Kontseiluko lehendakariordea
	Arabako Teknologia Parkea, SA	Administrazio Kontseiluko bigarren lehendakariordea

**SOCIEDAD PARA LA TRANSFORMACIÓN COMPETITIVA-ERALDAKETA
LEHIAKORRERAKO SOZIETATEA, S.A
GOBERNU KORPORATIBOAREN 2010EKO EKITALDIKO TXOSTENA**



	Teknologi Parkea, S.A.	Administrazio Kontseiluko bigarren lehendakariordea
Arantza Zenarrutzabeitia Beldarrain andrea	Arabako Teknologia Parkea, S.A.	Administratzailea
Francisco Javier Velez Sánchez jauna	Euskal Herriko Arrisku-Kapitalaren Kudeaketa AKEKS, S.A.	Zuzendari nagusia

2.13.- Sozietateak ez du araurik ezarri bere kontseilariak partaide izan daitezkeen kontseiluen kopuruari buruz.

2.14.- Besteak beste, Administrazio Kontseiluak erantzukizun hauek hartzen ditu enpresaren jardueraren gainean:

- Urteko kudeaketa-plana eta hura gauzatzeko ebaluazio partzialak.
- Goi zuzendaritza-karguen jardueraren pizgarriak eta ebaluazioa.
- Sozietatearen eta haren talde finkatuaren urteko kontuak formulatzea.
- Inbertsio-politika eta finantziarioa.
- Sozietate-taldearen egitura definitzea.
- Administrazio Kontseiluaren Araudia.
- Laguntza programen araudiak onartzea.

2.15.- Sozietateak Kontseiluaren Estatutua du, Administrazio Kontseiluko kide guztiak berretsia eta sinatua, eta gai hauek arautzen ditu:

- Kontseiluaren eraketa.
- Kontseiluaren egitura.
- Kontseiluko batzordeak.
- Kontseiluko funtzioak.
- Kontseiluaren funtzionamendua.
- Kontseilarien izendapena eta kargu-uztea.
- Kontseilarien eginbeharrak (kode deontologikoa)/interes-gatazka.
- Kontseilariaren eskubideak eta ahalmenak.
- Gobernu korporatiboa.

2.16.- Administrazio Kontseiluak barne-mailan nahitaez bete beharreko kontratazio-arau batzuk onartu ditu. Arau horien bidez, kontratazio-prozedurak arautzen dira, eta, hartara, publizitate-, konkurrentzia-, gardentasun-, konfidentziasun-, berdintasun- eta diskriminazio ezaren printzipioen eraginkortasuna bermatzen da.

2.17.- 2010ean, ez zaie inolako ordainsaririk eman Administrazio Kontseiluko kideei.

2.18.- 2010ean, Sozietateko kontseilariak ez dute ordainsaririk jaso taldeko beste sozietate batzuetako administrazio-kontseiluetako kide izateagatik.

2.19.- Administrazio Kontseiluaren hitzarmenaren arabera, 2010eko abenduaren 31n, Sozietateko zuzendari nagusiarena da zuzendaritza-kargu bakarra.

2.20.- Ez dago sozietateko goi-zuzendaritzako kideen berme- edo blindatze-klausularik, kontseilari exekutiboak barne.

2.21.- Ekitaldian zehar, ez da aldaketarik egin Kontseiluaren Araudian.

2.22.- Kontseilariak izendatzeko, berraukeratzeko eta kargugabetzeko prozedura nahiz jarraitu beharreko tramiteak "Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua Sortzeari" buruzko ekainaren 10eko 5/1981 Legearen 6. artikuluan daude jasota. Hauxe da testua:

"Autonomi Erkidegoak izenpetutako kapital sozialari dagozkion Sozietate Kudeatzailearen Administrazio Kontseiluko kideak Gobernuak izendatu edo kargugabetuko ditu, Industria Saileko titularrak eginiko proposamenari jarraituz eta Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari jakinaraziz".

2.23.- Kasu hauetan, kontseilariak behartuta daude dimititzera (Kontseiluaren Araudiaren 22. art.):

- *Izendatuak izan ziren epealdia igarotzen denean edo Batzar Nagusiak, legez eta estatutu bidez dituen eskumenak erabiliz, erabakitzen duenean.*
- *Legez aurreikusitako bateraezintasun- edo debeku-kasu bat betetzen denean.*
- *Kontseilari gisa dituzten betebeharrak hausten dituztenean.*
- *Kontseiluan jarraitzeak Sozietatearen interesak arriskuak jar ditzakeenean.*

2.24.- Pertsona bakar batean boterea metatzearen arriskuak murrizteko, neurri hau hartu da: 300.000 eurotik aurrera, lehendakariak, lehendakariordeak eta zuzendari nagusiak ahalmen erkidetuak dituzte ondasun higigarriak nahiz higiezinak erosteko, saltzeko eta trukatzeko, kontratuak egin, formalizatu, esleitu, luzatu, aldatu, berritu, baliogabetu eta desegiteko, mailegu- edo kreditu-eragiketak sinatu eta formalizatzeko eta mota guztietako fidantzak, bermeak, bahiak, hipotekak, eta abar eskatzeko, eratzeko, onartzeko eta deuseztatzeko.

2.25.- Ez dago araurik kontseilari independente bati Kontseiluaren deialdia eskatzea edo gai-ordenan beste puntu batzuk gaineratzea ahalbidetzen dionik, kanpoko kontseilarien kezka koordinatzeko eta adierazteko.

2.26.- Ez da eskatzen legezkoa ez den gehiengo indarturik erabaki mota batzuetarako, eta erdia gehi bateko quorumaren arabera hartzen dira erabakiak.

2.27. Estatutu Sozialen eta Kontseiluaren Araudiaren arabera, Kontseiluko lehendakariak funtzio hauek ditu organo horren funtzionamenduari dagokionez:

- a.** Sozietatearen goi-zuzendaritza.

- b.** Kontseiluko bilerak deitzea eta gidatzea, ebazteko eta baliogabetzeko ahalmena izanez, deliberamenduak zuzenduz, hitza emanez eta parte-hartzeen iraupena zehaztuz.
- c.** Kontseiluko bileren gai-ordena zehaztea.
- d.** Bere kide guztiak Administrazio Kontseiluko batzarretara azaldu daitezzen arduratzea, denei deialdi bana bidaliz Araudi honetan esaten den eran eta epean.
- e.** Kontseilariren batek sarri huts egiten baditu Administrazio Kontseiluetako batzarrak, egiaztatzea zergatik ez den azaltzen batzarretara.
- f.** Kontseiluko eta Batzordeko erabakiak exekutatu eta betearaztea.
- g.** Kontseiluaren funtzionamenduaren ebaluazioa gainbegiratzea, bai eta ebaluazio horretatik hel daitezkeen hobekuntza proposamenen aplikazioa, edo ohartutako akatsen zuzenketa.

2.28.- Lehendakariak kalitateko botoa du.

2.29.- Estatutuek eta Kontseiluaren Araudiak ez diote mugarik jartzen kontseilarien adinari.

2.30.- Estatutuek eta Kontseiluaren Araudiak ez dute berriazko agintaldirik ezartzen kontseilari independenteentzat.

2.31.- Ez dago prozesu formalik Administrazio Kontseiluan botoak eskuordetzeko. Hala ere, idatziz igorritako boto-eskuordetzeak bakarrik jasotzen dira aktan.

2.32.- Administrazio Kontseiluak sei bilera egin ditu 2010ean, eta lehendakaria guztietan izan da.

2.33.- Denera, Administrazio Kontseiluan 31 ez-agertze izan dira ekitaldian, eta, 21 kasutan, ez da botoa eskuordetu.

2.34.- Kontseiluari aurkezten zaizkion urteko kontu indibidualak eta bateratuak Laguntza Zerbitzuetako zuzendariorde nagusiak, Aitor Peñeñori Allende jaunak, egiaztatzen ditu aldez aurretik.

2.35.- Administrazio Kontseiluak ez du mekanismorik ezarri berak formulatutako urteko kontu indibidualak eta bateratuak Batzar Nagusian aurkeztea galarazteko, ikuskaritza-txosteneko salbuespenak kontuan izanda.

2.36.- Kontseiluko idazkariak ez du kontseilari-mailarik.

2.37.- Kontseiluko osoko bilkurak onartzen du Kontseiluko idazkariaren izendapena eta kargu-uztea.

2.38. Kontseiluko idazkariak bermatu behar du funtzionamendu arauak behar bezala aplikatzen direla eta aktak jasotzeko zein sinatzeko prozedurak behar bezala garatzen direla. Akta liburuak, akziodunen liburuak eta akordioen tramitazioak ere zaindu behar ditu, instrukzio

bat ezarri baita Sozietatearen kalitate sistemaren barruan, eta sistema horrexek kontrolatzen baitu idazkariak jarduera horiei buruzko arauak eta prozedurak aplikatzen dituela.

2.39.- Kontu-ikuskariaren independentzia bermatzeko, lehiaketa publikoaren mekanismoa erabiltzen du Sozietateak; hartara, publizitatea, objektibotasuna eta konkurrentzia bermatzen baitira.

2.40.- Sozietatearen eta bere inguruan finkatutako enpresa taldearen urteko kontuak ikuskatzeaz arduratzen den enpresak, Deloitte S.L.k, ikuskaritzaz gain, ez du beste lanik egiten Sozietatearentzat edota Taldearentzat.

2.41.- 2010eko ekitaldiko urteko kontuen ikuskaritza-txostenean ez da erreserba edo salbuespenik ageri.

2.42.- Egungo ikuskaritza-enpresak lehen aldiz egin du Sozietatearen eta bere enpresa taldearen urteko kontuen ikuskaritza. Hala, gaur egungo enpresak ikuskatutako urteak % 3,44 dira urteko kontuak ikuskatu diren urte guztiekiko.

2.43.- Dagozkien funtzioak egiteko laguntza jasotzeko, lege-aholkulariak, kontulariak, finantza-aholkulariak edo bestelako adituak kontratatu ditzakete edo bileretara joan daitezten eska dezakete kontseilariak. Halako laguntzaile bat eskatu eta eskuratzeko, beharrezkoa izango da argitu nahi den arazoak gutxieneko munta eta konplexutasun maila izatea, eta eskatzaileari bere karguko jardunean agertutakoa izatea.

Laguntzaile bat kontratatu nahi denean Kontseiluko presidenteari jakinarazi beharko zaio. Kontratazioa ezetsi egin daiteke baldin ondoko zerbait frogatzen bada:

- a. Ez dela beharrezkoa enkargatutako lana egiteko.
- b. Kostuak ez duela proportziorik gordetzen arazoaren garrantziarekin.
- c. Sozietateko aditu eta teknikariek berdin egoki eman dezaketela eskatutako laguntza teknikoa.

2.44.- Kontseilariak administrazio-organoetako bilerak prestatzeko behar den informazioa izateko, gutxienez hamar egun naturaleko aurrerapenarekin egiten da deialdia —gutun bidez egiten bada—, eta zazpi eguneko aurrerapenarekin —posta elektronikoko bidez egiten bada— kontseilariak kasu bakoitzean adierazitako helbidera. Deialdi horretan, bileraren gai-ordena eta dagokion informazioa ematen dira beti.

2.45.- Kontseiluaren deialdia egitean, gai-ordena garatzeko aurreikusten den denboraren berri ematen zaie Administrazio Kontseiluko kide guztiei, eta denbora gehigarri bat gaineratzen da galde-eskeetarako.

2.46.- Administrazio Kontseiluko kideei etengabe informazioa emateko sistema bat garatu du enpresak. Hala, Administrazio Kontseiluko kideen gai-ordenaren barruan, enpresaren finantza-eta ekonomia-arloari eta jarduerari buruzko informazioa ematen da, eta, haren bidez, zuzenean egoeraren berri izateko informazio garrantzitsua jasotzen dute kideek.

2.47.- Administrazio Kontseiluaren Araudian kontseilariarentzako kode deontologiko bat gaineratu da, kide guztiek bete beharreko irizpide etikoak eta portaera-irizpideak jasotzen dituen. Kode horretan, etikoki onargarriak diren erabakiak hartzeko, kontseilarien artean izan daitezkeen interes-gatazketarako, gatazka horiek konpontzeko... irizpideak ezartzen dira, eta

SOCIEDAD PARA LA TRANSFORMACIÓN COMPETITIVA-ERALDAKETA
LEHIAKORRERAKO SOZIETATEA, S.A
GOBERNU KORPORATIBOAREN 2010EKO EKITALDIKO TXOSTENA



kapitulu hauetan egituratuta dago:

- Portaera-irizpideak
- Kontseilariaren betebeharrak orokorrak
- Isilpekotasun-betebeharra
- Gardentasunaren eta informazioaren betebeharra
- Interes-gatazka
- Sozietatearen izena erabiltzea
- Informazio ez-publikoa
- Lotutako pertsona

2.48.- Administrazio Kontseiluko kide batek ere ez dio adierazi Sozietateari prozesatu dutenik edo haren aurka ahozko epaiketa irekitzeko autoa eman denik, Kapital Sozietateen Legearen 213. artikuluan adierazitako delituak direla eta.

2.49.- Urtero, Administrazio Kontseiluaren bilerak ebaluatzen dira, inkesta baten bidez, eta arlo hauei buruz galdetzen da, besteak beste: bileren datak, deialdiak, gai-ordenako gaiari buruzko informazioa, informazio-eskaerei emandako arreta, etab.

3. LOTUTAKO ERAGIKETAK

3.1.- Lotutako erakundeekin egindako eragiketatzat jotzen dira Taldeko enprekin eta elkartutakoekin egindakoak. Halaber, lotutako eragiketatzat hartzen dira, Sozietatearen izaera publikoagatik, haren eragina jaso dezaketen Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeekin egindako transakzioak.

Sozietatearekin lotutako aldeek transakzio hauek egin dituzte ekitaldian, eta hau da lotura horien izaera:

	Loturaren izaera
Sprilur, S.A. Euskal Herriko Arrisku-Kapitalaren Kudeaketa AKEKS, S.A. Teknologi Parkeak eta Arabako Enpresa eta Berrikuntza Zentroa, S.A. Industrialdeak programako sozietateak Eusko Jaurlaritza eta lotutako erakundeak	Taldeko enpresa Taldeko enpresa Taldeko enpresak Taldeko enpresak Lotutako erakundeak

2010eko abenduaren 31n, hauek diralotutako sozietateek izan dituzten saldoak (eurotan):

	SPRI taldeko enpresak	SPRI taldeko enpresa elkartuak eta partaideak	Eusko Jaurlaritza eta lotutako beste erakunde batzuk	Guztira
Epe luzerako kredituak	13.913.661	200.000	-	14.113.661
Bezeroak, taldeko enpresak eta bazkideak	57.161	-	-	57.161
Epe luzeko zorrak	-	-	23.889.929	23.889.929
Epe laburreko zorrak	203.416	827.965	1.435.295	2.466.676

Eusko Jaurlaritzarekin lotutako erakundeekiko epe laburreko zorrak EJIE, S.A. sozietateak (Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen enpresa) emandako zerbitzuei dagozkie oso-osorik, zerbitzu informatikoen kudeaketa eta mantenimendu eta azpiegitura informatikoen diseinurako Sozietate horrekin hitzartuta daukan lankidetzak akordioaren arabera.

Sozietatearekin lotutako aldeek transakzio hauek egin dituzte 2010. ekitaldian (eurotan):

	SPRI taldeko enpresak	SPRI taldeko enpresa elkartuak eta partaideak	Eusko Jaurlaritza eta lotutako beste erakunde batzuk
Emandako zerbitzuak	109.488	104.830	-
Jasotako zerbitzuak	36.050	44.645	3.994.400
Jasotako diru-laguntzak	-	-	89.397.031
Emandako diru-laguntzak	187.763	3.307.845	-
Finantza gastuak	-	-	1.605.310
Jasotako dibidenduak	475.000	-	-
Kredituen diru-sarrerak	187.316	-	-

3.2.- Administrazio Kontseiluaren eta Goi Zuzendaritzaren ordainsariak

2010eko ekitaldian, Sozietateko Administrazio Kontseiluko kideek ez dute ordainsaririk jaso soldata, dieta edo bestelako kontzeptuetan.

Ekitaldi honetan 80.398 euro (50.483 euro 2009ko abenduaren 31n, Itzarri – BGAERI eginiko 1.830 euroko ekarpenak barne hartuz, 1.514 euro 2009ko abenduaren 31n) ordaindu zaizkio zuzendari nagusiari kontzeptu guztiengatik.

2010eko abenduaren 31n, Sozietateak ez du obligaziorik Administrazio Kontseiluko lehengo edo egungo kideen eta goi-zuzendarien pentsioei eta bizi-aseguruei dagokienez (Sozietateko langile guztiek dituzten bizi-aseguruek alde batera utzita), eta ez du haien kontura bereganatutako eskubiderik berme-gisa. Ekitaldi horietan ez dute aurrerakinik jaso.

3.3.- Administrazioaileen interes-gatazkei buruzko informazioa

Kapital Sozietateei buruzko Legearen 229 artikuluan ezarritakoaren arabera, 2010eko ekitaldia ixtean Administrazio Kontseiluko kideek eta Kapital Sozietateei buruzko Legearen arabera horiekin lotuta dauden pertsonak ez dute partaidetzarik izan Sozietate honen xede berbera, antzekoa edo osagarria duen ezein sozietateko kapitalean. Era berean baieztatu dute ez daukatela kargurik edo funtziorik Sozietate honen xede berbera, antzekoa edo osagarria duen ezein sozietatean eta ez dutela garatzen Sozietate honen xede berbera, antzekoa edo osagarria duen jarduerarik beren edo besteren kontura, koadro honetan adierazten direnak salbu:

SOCIEDAD PARA LA TRANSFORMACIÓN COMPETITIVA-ERALDAKETA
LEHIAKORRERAKO SOZINETATEA, S.A
GOBERNU KORPORATIBOAREN 2010EKO EKITALDIKO TXOSTENA



Admininstraizailea	Kargua / Funtzioa	Sozietatea
Izaskun Arteché García	Lehendakariordea Idazkaria Lehendakaria Kontseilari delegatua Batordekidea Lehendakaria Lehendakaria Lehendakaria Idazkaria Batordekidea Batordekidea Batordekidea Batordekidea Batordekidea Batordekidea Batordekidea	Arratiako Industrialdea, SA Bizkaiko Teknologia Parkea, S.A. Azpiegitura, S.A. BEAZ, S.A. Bizkaiko Berrikuntza Agentzia, S.A. Bizkailur, S.A. Ezkerraldeko Enpresak Garatzeko Zentroa, S.A. Seed Capital de Bizkaia, S.A. Sestao Bai, S.A. Abanto Zierbenako Industrialdea, SA Ibar Zaharra, SA Urduñako Industrialdea, SA Ortular, S.A. SPRI, S.A. Urdulizko Industrialdea, SA Burtzeñako Teknologia Parkea, S.A.
Hernando Lacalle Edeso	Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria	Arabako Garapen Agentzia, S.A. Arabako Eraberrikuntza Industrialdea, SA Hazibide, S.A. Arabako Teknologia Parkea, SA Viruc Promociones, S.A. Araba Gertu, S.A. Euskal Herriko Arrisku-Kapitalaren Kudeaketa AKEKS, S.A. Caja Vital Kutxa
Arantza Zenarrutzabeitia Beldarrain	Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria	Arabako Garapen Agentzia Araba Logística, S.A. C.T.V. Centro de Transporte de Vitoria Arabako Teknologia Parkea, S.A. Industri Sustapen eta Birmoldaketarako Sozietatea, S.A. Vía Promoción del Aeropuerto de Vitoria, S.A. Vías de Álava, S.A. Vitoria Integrated Air Services, S.A.

SOCIEDAD PARA LA TRANSFORMACIÓN COMPETITIVA-ERALDAKETA
LEHIAKORRERAKO SOZIETATEA, S.A
GOBERNU KORPORATIBOAREN 2010EKO EKITALDIKO TXOSTENA



Admininstratzailea	Kargua / Funtzioa	Sozietatea
Iñaki Hidalgo González	Batzordekidea Batzordekidea Batzordekidea Lehendakaria Lehendakaria Lehendakaria Lehendakaria	BEC, S.A. Bilbao Air, Bilboko Aireportua Sustatzeko Sozietatea Bilbao Ría 2000, S.A. Azpiegitura, S.A. Bizkaiko Bideak, S.A. Bizkailur, S.A. BEAZ, S.A.
Pedro Hernández González	Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria	Euskal Herriko Arrisku-Kapitalaren Kudeaketa AKEKS, S.A. Teknologi Parkea, S.A. Donostiako Teknologia Parkea, S.A. Arabako Teknologia Parkea, S.A. Donostia Phisis Center Bilboko Portuko Agintaritza Bilbao Exhibition Center, S.A.
Javier Garmendia Martínez	Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Lehendakaria Lehendakariordea Lehendakariordea	Luzaro, E.F.C, S.A. Teknologi Parkea, S.A. Donostiako Teknologia Parkea, S.A. Arabako Teknologia Parkea, S.A. Pasaiaiko Portuko Agintaritza Bahía de Bizkaia Electricidad, S.L. Mondragón Promoción Empresarial SPE, SA Mondragón Innovación SPE, S.A. EKARPEN SPE, S.A. Energiaren Euskal Erakundea Sprilur, S.A. Zabalgardi, S.A. Naturgas Energía Grupo, S.A.
Bernabé Unda Barturen	Lehendakaria	Basquetour, Turismoaren Euskal Agentzia, S.A.
Juan José Garayzar Elizondo	Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria	Euskal Herriko Arrisku-Kapitalaren Kudeaketa AKEKS, S.A. Mondragón Promoción Empresarial S.P.E., S.A. Ekarpen SPE, SA Sprilur, S.A.
Carlos Aguirre Arana	Lehendakaria Batzordekidea Batzordekidea Kontseilaria	Finantzen Euskal Institutua Bilbao Ría 2000, S.A. Bilbao Metropoli-30 Energiaren Euskal Erakundea
Pablo Angulo Barcena	Zuzendaria	INNOBASQUE, Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Jose Ramón Guridi	Lehendakaria Lehendakaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria Kontseilaria	BIC Gipuzkoa Berrilan, S.A. Informatika Zerbitzuen Foru Sozietatea-IZFE, S.A. Garaia Berrikuntza Poloa S.Coop. Ekarpen, S.A. Fik Advanlife, S.L. Seed Gipuzkoa, SCR Sociedad Promotora de la Zona Aduanera de Irún, S.A. (Zaisa)
Jose Manuel Iturrate Andechaga	Lehendakaria Lehendakaria Lehendakaria Batzordekidea Batzordekidea 2. lehendakariordea 2. lehendakariordea 2. lehendakariordea Batzordekidea	Zamudioko Enpresa Zentroa, S.A. Burtzeña Enpresa Parkea, S.A. Zuatzu Enpresa Parkea, S.A. Gasteizko Industria Lurra, S.A. Ibar Zaharra, S.A. Arabako Teknologia Parkea, S.A. Teknologi Parkea, S.A. Donostiako Teknologia Parkea, S.A. Vitoria Integrated Air Services
Pilar Zorrilla Calvo	Lehendakariordea	Basquetour, Turismoaren Euskal Agentzia, S.A.

3.1.- 2010eko ekitaldian, Administrazio Kontseiluko kideak ez dira egon inolako interes-gatazkatan nahastuta, Kapital Sozietateen Legeko 227, 228, 229 eta 231 artikuluetan ezartzen den moduan.

3.2.- Administrazio Kontseiluaren Araudian honakoa ezartzen da:

Kontseilariak interes-gatazka egoerak saihestu behar ditu bere eta berarekin eta Sozietatearekin lotura duten pertsonen artean, eta, egoera horiek saihestezinak izanez gero, Administrazio Kontseiluari jakinarazi behar dio. Bereziki:

- *Kontseilariak ez du parte hartu behar zuzenean edo zeharka eragiten dioten gaietarako erabakietan.*
- *Kontseilariak ez du egin behar —ez zuzenean ez zeharka— zerbitzu profesionalen edo izaera komertzialeko zerbitzuen transakzioerik Sozietatearekin, aurrez interes-gatazkari buruz informatzen duenean eta kontseiluak transakzioa onartzen duenean salbu.*
- *Kontseilariak ezin du aprobetxatu, bere edo harekin lotura duten pertsonen onurarako, Sozietatearen negozio-aukerarik. Halakotzat jotzen da Sozietatean sortutako edo Kontseilariak, bere kargua dela-eta edo Sozietatearen informazio-bideak erabiliz aurkitutako edozein inbertsio edo eragiketa komertzial egiteko aukera.*

Kontseilarietarako, edozein gehiegikeria edo ez-betetzere berri dutenean —eta, bereziki, informazio garrantzitsu edo pribilegiatuaren erabilerarekin lotua badago— lehendakariari jakinarazi behar diote, Sozietatearekiko duten leialtasunagatik.

4. ARRISKUEN KONTROLA

4.1.- Eusko Jaurlaritzak egindako EAeko Sektore Publikoko Erakundeen, Sozietateen eta Fundazioen Barne Kontrolerako Ezarpen eta Garapenerako Eskuliburua aplikatzen da (Ekonomia eta Ogasun Saila) eta aplikazio hori Sozietateko Prozesu bidezko Kudeaketaren Ezarpen proiektuan dago jasota.

4.2.- Arriskuak identifikatu dira, Sozietateko arriskuaren mapa egin da eta arriskuaren fitxak zehaztu dira, zeintzuetan zenbait alderdi barne hartzen baitira: "definizioa", "adierazleak", "garrantziaren kalifikazioa", "gertatzeko probabilitatea" eta "arrisku bakoitzaren kontrola eta eragin potentziala".

4.3.- Prozesu bidezko Kudeaketaren Ezarpen proiektuko plangintzaren arabera, Sozietateko prozesuak identifikatzen eta deskribatzen dira, horiekin lotutako arriskuak identifikatuz eta horiek kudeatzeko kontrolak ezarriz.

4.4.- Barne kontrolerako auditoria sistematika bat ezarri da (alderdi ekonomiko-finantzarioan, tekniko-legalean, kudeaketa-kalitate sisteman), Sozietatea eta Talde osoa barne hartzen duena.

4.5.- Ekitaldian zehar ez da gauzatu Sozietateak edota Taldeak dauzkan arriskuak bat ere (operatiboak, teknologikoak, finantzariak, legalak, izen onari dagozkionak, fiskalak...).

4.6.- Eremu/prozesuetako arduradun bakoitzarena da araudia betetzen dela kontrolatzeko erantzukizuna.

4.7.- Kontseiluan lortutako akordioaren balio juridikoa bermatzeko mekanismo gisa, Administrazio Kontseiluko abokatu aholkuari bat aukeratu da.

4.8.- Administrazio Kontseiluko kide guztientzat erantzukizun zibileko estaldura duen aseguru-poliza bat kontratatu da, enpresaren kontura, Kontseiluko kideen erantzukizun-erregimenaren aplikazioa dela-eta sortu daitezkeen gatazken aurrean lege-estaldura izateko.

4.9.- Finantza-tresnen izaerari eta arrisku-mailari buruzko informazioa:

Sozietateak ez dauka merkatu arriskurik, bere jardueraren baitan ez dituelako ondasunak saltzen eta zerbitzu eskaintza bere diru-sarreraren zati txiki bat delako. Sozietateak finantza tresnen bidezko jarduerak gauzatzen ditu, eta beraz, nagusiki kreditu, likidezia eta interes-tasen arloko arriskuak dauzka.

4.10.- Arrisku-kreditua

Oro har, kreditu-maila handiko finantza-erakundeekin baliokideak diren mailetan mantentzen ditu Sozietateak bere diruzaintza eta aktibo likidoak.

Kreditu-arriskua, funtsean, Administrazio Publikoekiko saldoak kobratzeari dagokio. Horren harira, 2010eko ekitaldia ixtean zeuden finantza aktiboak (taldeko enpresak barne hartu gabe) 32.983.387 eurokoak ziren guztira (2009ko abenduaren 31n 69.458.165 eurokoak) eta kopuru horretatik 32.337.075 euro Administrazio Publikoek kobratu beharreko kopuruak dira sortutako diru-laguntzengatik eta BEZagatik.

Gainerako zor-saldoak gehienbat diru-laguntza programekin lotutako finantza erakundeetan eginiko gordailuei dagozkie. Zentzu horretan, Sozietateak kapitaleko diru-laguntzak dauzka mailegu horiek berreskuratzean galeraren bat gertatuko balitz ere.

Taldeko enpresen eta enpresa elkartuen kredituak —zeintzuen saldoa 14.113.661 milioi eurokoa baitzen ekitaldiaren amaieran—, batez ere, inbertsio estrategikoetarako epe luzera egindako entreegi dagozkie (7.509.100 euro). Gainera, 2010ean aurrerakinak eman ziren taldeko sozietateetan aurreikusitako kapital zabalkuntzak egiteko, guztira 4.614.600 euro.

4.11.- Likideziaren eta interes-tasen arriskua

Sozietateak finantza baliabideak lortzeko duen gaitasuna Euskal Autonomi Erkidegoko Urteko Aurrekontuetan finkatzen da. Horren harira, ekitaldi honetan 45.025.000 euro jaso ditu akziodunek egindako ekarpenen bidez.

Gainera, Sozietateak Eusko Jaurlaritzatik (ustiapenagatiko diru-laguntzetatik) jasotzen ditu ekintza programen kostu garbia estaltzeko eta programa horien kudeaketarako ustiapen egitura mantentzeko behar dituen funtsak.

Edonola ere, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua, S.A. sortzeko legearen arabera, Euskadiko Ogasun Orokorak zaindu behar du Sozietatearen finantza oreka.

Bestalde, kreditu-entitateekin hitzartutako kanpoko finantza-baliabideen baldintzak —pasiboak nahiz aktiboak— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta finantza-entitateen artean urtero sinatutako hitzarmen bidez arautu ohi dira. Hitzarmen horretan, kasu bakoitzean aplikatu beharreko interes-tasak, komisioak, eta abar zehazten dira, Euriborraren arabera.

5. BATZAR NAGUSIA

5.1.- Batzar Nagusia eratzeko quorumari dagokionez, ez dago desberdintasunik Kapital Sozietateen Legean aurreikusitako erregimenarekin.

5.2.- Hitzarmen sozialei dagokienez, ez dago desberdintasunik Kapital Sozietateen Legean aurreikusitako erregimenarekin.

5.3.- Batzar Nagusiak izaera unibertsalarekin egin ohi dira.

5.4.- Batzar Nagusiko lehendakaria eta Administrazio kontseiluko lehendakaria pertsona bera dira.

5.5.- Sozietateak ez du egin Batzar Nagusiko araudirik.

5.6.- Hauek dira txosten honi dagokion ekitaldian egindako batzar nagusietara bertaratutakoen datuak:

Batzar Nagusiaren data	Bertaratutakoen datuak		
	Presentzia fisikoaren %	Ordezkaritzaren %	Guztira
2010.03.31	%75	%25	%100
2010.10.08	%100	%0	%100
2010.12.13	%100	%0	%100

5.7.- Txosten honi dagokion ekitaldian egindako batzar nagusietako akordio guztiak aho batez hartu dira. Hain zuzen, akordio hauek hartu dira:

2010eko martxoaren 31n egindako batzarra

1º.- *2009ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion Sozietatearen urteko kontuak onartzea (egoera-balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbian izandako aldaketen egoera, eskudiru-fluxuaren egoera eta memoria), zeintzuk bat baitatuz auditoria egin duen Ernst & Young S.A. konpainiak auditatutako kontuekin.*

2º.- *2009ko ekitaldiaren kudeaketa soziala eta kudeaketa-txostena onartzea.*

3º.- *Ekitaldiko galerak —3.641.427 euro— “Aurreko Ekitaldietako Emaidza Negatiboen Kontuan” aplikatzeko proposamena onartzea*

4º.- *31.- 2009ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion SPRI Taldearen urteko kontu bateratuak onartzea (egoera-balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbian izandako aldaketen egoera, eskudiru-fluxuaren egoera eta memoria).*

5º.- *2009ko ekitaldiari dagokion SPRI Taldeko kudeaketa-txosten bateratua onartzea.*

6º *Izaskun Artetxe García andrea eta Pablo Angulo Bárcena jauna Administrazioarekin karguetatik kentzea*

7º *Iñaki Hidalgo González eta Javier Ruiz Fernández jaunak administrazioarekin kargurako izendatzea.*

2010eko urriaren 8an egindako batzarra

- 1º *Kapital Soziala HOGETA HAMABOST MILIOI (35.000.000) euro zabaltzea. Horretarako EHUN (100) euro izenduneko HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA (350.000) akzio izendun berri jalgiko dira, 3.405.809tik 3.755.808ra korrelatiboki zenbakituak, biak barne.*
- 2º *Estatutu Sozialerako 6. artikuluko testua aldatzea, zeina honela geratuko baita: Kapital Soziala HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST MILIOI, BOSTEHUN ETA LAUROGEI MILA ETA ZORTZIEHUN (375.580.800) eurokoa da, HIRU MILIOI, ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HAMABOST MILA, ZORTZIEHUN ETA ZORTZI (3.755.808) akzio izendunetan banatua, horietako bakoitza ehun euro izenduneko delarik, mota bakarrekoak eta korrelatiboki zenbakituak batetik (1) hiru milioi, zazpiehun eta berrogeita hamabost mila, zortziehun eta zortzi (3.755.808) zenbakira. Guztiek dauzkate eskubide politiko eta ekonomiko berberak eta oso-osorik izenpetuta eta ordainduta daude”.*
- 3º *Ignacio M^a Echeberria Monteberría jauna Administrazioaile kargutik kentzea eta Pedro Esnaola Latasa jauna Administrazioaile izendatzea.*

2010eko abenduaren 13an egindako batzarra

- 1º *Pedro Hernández González jauna kargutik kentzea*
- 2º *Francisco Javier Vélez Sánchez Administrazioaile izendatzea*
- 3º *“Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua, S.A.ko administrazioaileak berraukeratu: Jesús Alberdi Areizaga jauna, Bilbao Bizkaia Kutxa eta Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea,*
- 4º *2010, 2011 eta 2012. urteetan INDUSTRIAREN SUSTAPEN ETA ERALDAKETARAKO BALTZUA S.A.ren Urteko Kontuak egiteko auditoreak izendatu: Deloitte, S.L. auditoria konpainia, espainiar nazionalitatekoa, egoitza helbide honetan duena: Madril, Pablo Ruiz Picasso Plaza 1, Picasso Dorrea eta ondore horietarako egoitza helbide honetan duena: Bilbo, Ercilla kaleko 24 zk., 4. solairua (48011), identifikazio fiskaleko zedula B-79104469. Inskribatuta dago Madrileko Merkataritza Erregistroan (13.650 liburukia, 188 folioa, 8 sekzioa, M-54414 orria, 96 inskripzioa), Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean (ROAC), S0692, eta Espainiako Ekonomisten Elkargo Nagusiko Kontseiluaren Auditore Ekonomisten Erregistroko Sozietateen, Sekzioan (REA)”.*
- 5º *2010, 2011 eta 2012. urteetan SPRI Taldeko Urteko Kontu Bateratuak egiteko auditoreak izendatu: Deloitte, S.L. auditoria konpainia, espainiar nazionalitatekoa, egoitza helbide honetan duena: Madril, Pablo Ruiz Picasso Plaza 1, Picasso Dorrea eta ondore horietarako egoitza helbide honetan duena: Bilbo, Ercilla kaleko 24 zk., 4. solairua (48011), identifikazio fiskaleko zedula B-79104469. Inskribatuta dago Madrileko Merkataritza Erregistroan (13.650 liburukia, 188 folioa, 8 sekzioa, M-54414 orria, 96 inskripzioa), Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean (ROAC), S0692, eta Espainiako Ekonomisten Elkargo Nagusiko Kontseiluaren Auditore Ekonomisten Erregistroko Sozietateen Sekzioan (REA)”.*

2010eko abenduaren 22an egindako Batzarra

- 1º *Kapital Soziala HOGEI MILIOI ETA BERROGEITA HAMAR MILA (20.050.000) euro zabaltzea. Horretarako EHUN (100) euro izenduneko BERREHUN MILA ETA BOSTEHUN (200.500) akzio izendun berri jalgiko dira, korrelatiboki 3.755.809tik 3.956.308ra zenbakituak, biak barne.*

5.8.- Estatutuaren ez dago mugarik Batzar Nagusira joateko beharrezkoa den gutxieneko akzio-kopuruari buruz.

5.9.- Batzar Nagusian botoa eskuordetzeko politika Estatutu Sozialen 14. artikuluan zehazten da:

“Akziodun oro joan daiteke Batzar Nagusietara edo bera ordezkatzeko duen beste pertsona bat bidal dezake batzarretara, baldin eta beste hori ere akzioduna bada. Ordezkaritza behar den Batzar bakoitzerako, idatzi bat aurkeztu beharko da.”

**SOCIEDAD PARA LA TRANSFORMACIÓN COMPETITIVA-ERALDAKETA
LEHIAKORRERAKO SOZETATEA, S.A
GOBERNU KORPORATIBOAREN 2010EKO EKITALDIKO TXOSTENA**



AZKEN OHARRA:

Kontseiluko Araudiaren eta Gobernu korporatiboaren txostenaren edukia ikusteko webgune honetara jo daiteke zuzenean: www.spri.es